

ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAREN ETIKETAREN NAHITAEZKOTASUNA



BETEBEHARRA

NORENTZAT

ZERGATIK

"Eraginkortasun Energetikoaren Etiketak egiaztatzen du eraikinak, edo haren zati batek, Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiri bat inskribatuta duela Euskadiko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiriaren Erregistroan. Lortutako eraginkortasun energetikoaren kalifikazio-maila adierazten duen bereizgarria da eta Ziurtagiriaren erregistro-zenbakia jasotzen du. Etiketaren baliozkotasuna erregistratutako Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiriaren baliozkotasunari lotuta dago."

1

ERAIKIN BERRIA

KASUA IKUSI

2

LEHENDIK DAGOEN ERAIKINA, EDO ERAIKIN ZATIA, SALTZEA EDO ALOKATZEA

KASUA IKUSI

3

LEHENDIK DAGOEN ERAIKINA, EDO ERAIKIN-ZATIA, NON ERABERRITZEAK EDO HANDITZEAK EGIN DIRA

KASUA IKUSI

4

LEHENDIK DAUDEN ERAIKINAK, EDO ERAIKIN-ZATIAK, GUZTIRA 500 m²-KO AZALERA ERABILGARRIA DUTENAK ETA ERABILERA HAUETARAKO ERABILTZEN DIRENAK: ADMINISTRAZIO-, OSASUN-, MERKATARITZAKO, BIZITEGI PUBLIKOKO, IRAKASKUNTZAKO, KULTURA-, JOLAS-JARDUERAKO, OTORDU-ZERBITZURAKO, PERTSONEN GARRAIORAKO, KIROL- ETA GURTZA-ERABILERA

KASUA IKUSI

5

ERAIKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOA (EIT) PASA BEHAR DUTEN ERAIKINAK

KASUA IKUSI

6

EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN TITULARTASUNEKO ERAIKINAK ETA ERAIKIN-ZATIAK

KASUA IKUSI

7

EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK EZ DIREN ADMINISTRAZIO PUBLIKOEI DAGOZKIEN EDO HAI EK OKUPATUTAKO ERAIKINAK, EDO ERAIKIN ZATIAK

KASUA IKUSI

8

ENERGIA-KONTSUMITZAILE HANDIAK DIREN ENPRESEN JABETZAKO ERAIKINAK, EDO ERAIKIN-ZATIAK

KASUA IKUSI

9

TITULARTASUN PRIBATUKO ERAIKINAK, 2020KO AZAROAREN 19AN ZEUDENAK, BIZITEGI-ERABILERARAKO DIRENAK

KASUA IKUSI



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAREN ETIKETAREN NAHITAEZKOTASUNA



KASUA **1** ERAIKIN BERRIA

Betebeharra

Ziurtapenak 2 fase ditu:

1. fasea: Proiektuaren Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiriak, egikaritze-proiektua bisatu aurretik Erregistroan inskribatuta egon behar du, hau da, dagokion Eraginkortasun Energetikoaren Etiketa izan behar du.

2. fasea: Eraikin Bukatuaren Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria. Erregistroan behin inskribatu ondoren, Eraikinaren Liburuan jasota geratu behar da.

Norentzat

Eraikinaren sustatzailea edo jabea den pertsona.

Zergatik

[Eraikin eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarrizko prozedura onartzen duen ekainaren 1eko 390/2021 Errege Dekretuak](#) bere 3.1.a) eta 9. artikuluetan, eta [Euskal Autonomia Erkidegoko eraikin eraginkortasun energetikoaren ziurtapenari eta ziurtapenaren kontrol-prozedurari eta erregistroari buruzko otsailaren 26ko 25/2019 Dekretuak](#) bere 34. eta 35. artikuluetan jasotakoaren arabera.



Gogoratu:

Informazio gehiago behar duzu?



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAREN ETIKETAREN NAHITAEZKOTASUNA



KASUA **1** ERAIKIN BERRIA

Gogoratu:

- 1.** Eraginkortasun Energetikoaren Etiketa lortzeak frogatzen du Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria Erregistroan behin betiko inskribatu dela.
- 2.** Publizitate-euskarriak -obrako hesiak, erakusleihoak, higiezin atariak edo antzekoak- erabiltzen badira, kalifikazio energetikoaren kalifikazioari buruzko informazioak gutxienez informazio hau eman beharko du, modu ikusgarrian: kalifikazio energetikoaren eskala eta lortutako kalifikazioa. Prentsa idatziko iragarkien kasuan, kalifikazio energetikoa aipatu beharko da.
- 3.** Obra berriaren adierazpenaren eskriturak baimentzeko notarioek eta obra berriaren adierazpenaren eskriturak Jabetza Erregistroan inskribatzeko jabetza-erregistratzaileek Eraikin Bukatuaren Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria eta hori erregistroan inskribatuta dagoela ziurtatzen duen Etiketa aurkezteko eskatuko dute, Lurzoruaren Legearen testu bateginarekin bat etorritik.
- 4.** Energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoan A, B edo C kalifikazioa duten Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiri guztientzat, sustatzaileak edo jabeak proiektuaren fasetik hasita, ziurtagiriaren kontrola kontratatu behar dio **Kontrol Agente** bati.
- 5.** Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiri guztiak **EGUNERATU** egin behar dira hasieran bildutako kalifikazio energetikoari eragiten dioten obrak ekiten badira, eta haien indarraldia bukatzen denean **BERRITU** egin behar dira.



ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAREN ETIKETAREN NAHITAEZKOTASUNA



KASUA 2

LEHENDIK DAGOEN ERAIKINA, EDO ERAIKIN ZATIA, SALTZEA EDO ALOKATZEA

Betebeharra

Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiriak Erregistroan inskribatuta egon behar du, eta, beraz, Eraginkortasun Energetikoaren Etiketa izan behar du, eraikinaren edo haren zati baten salmentaren edo alokairuaren publizitatea egin aurretik.

Norentzat

Saldu edo alokatu beharreko eraikinaren edo haren zatiaren jabea den pertsona.

Zergatik

[Eraikinen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarrizko prozedura onartzen duen ekainaren 1eko 390/2021 Errege Dekretuak](#) bere 3.1.b) artikuluan, eta [Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtapenari eta ziurtapenaren kontrol-prozedurari eta erregistroari buruzko otsailaren 26ko 25/2019 Dekretuak](#) bere 34. eta 35. artikuluetan jasotakoaren arabera.



Gogoratu:

Informazio gehiago behar duzu?



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAREN ETIKETAREN NAHITAEZKOTASUNA



KASUA 2

LEHENDIK DAGOEN ERAIKINA, EDO ERAIKIN ZATIA, SALTZEA EDO ALOKATZEA

Gogoratu:

1. Eraginkortasun Energetikoaren Etiketa lortzeak frogatzen du Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria Erregistroan behin betiko inskribatu dela.
2. Publizitate-euskarriak -obrako hesiak, erakusleihoak, higiezin atariak edo antzekoak- erabiltzen badira, kalifikazio energetikoaren kalifikazioari buruzko informazioak gutxienez informazio hau eman beharko du, modu ikusgarrian: kalifikazio energetikoaren eskala eta lortutako kalifikazioa. Prentsa idatziko iragarkien kasuan, kalifikazio energetikoa aipatu beharko da.
3. Jabearen, edo salmentaren edo alokairuaren sustapenaz edo publizitateaz arduratzen den pertsonaren, ardura izango da, interesdun orenen eskura eta haiek eskatzen duten une berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroak emandako ziurtagiriaren erregistro zenbakia jartzea.
4. Notarioek, lehendik dauden eraikinen edo haien zatien errentamenduaren eskritura publikoak edo horien domeinua kostu bidez transmititzeko eskritura publikoak baimentzean, jasota utziko dute ea erosleari edo errentariari Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria eta horri dagokion Etiketa eman zaizkion, energia-ziurtapen prozedurari dagozkien fitxategi informatikoekin batera, eta, eman bazaizkio, testigantza bidez sartuko dira eskritura publikoan.
5. Energetikoki ziurtatzeko betebeharretik salbuetsita daude honako hauek:
 - a) Ofizialki babestutako eraikinak, ingurune aitortu baten zati direlako edo balio arkitektoniko edo historiko berezia dutelako, **betiere eraginkortasun energetikoa hobetzeko edozein jarduerak haren izaera edo itxura modu onartezinean aldatzen badu. Babes ofiziala ematen duen agintaritzak zehaztu beharko ditu zeintzuk diren elementu aldaezinak.**
 - b) **Beste eraikin batzuekin kontaktuan ez dauden eta guztira 50 m²-tik beherako azalera erabilgarria duten eraikinak.**
 - c) **Aurri-egoeran dauden eraikin osoak.**
 - d) **Espazio bizigarritzat hartzen ez diren eraikinak edo eraikin-zatiak, hala nola landugabeko lokalak, garajeak eta trastelekuak.**
6. Energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoan A, B edo C kalifikazioa duten Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiri guztientzat, sustatzaileak edo jabeak ziurtagiriaren kontrola kontratatu behar dio **Kontrol Agente** bati. **Pertsona fisikoen jabetzako etxebizitza-erabilera eskusiboko eraikinak edo eraikin-zatiak badira, jabeak kontrola eska diezaioke Euskadiko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroari.**
7. Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiri guztiak **EGUNERATU** egin behar dira hasieran bildutako kalifikazio energetikoari eragiten dioten obrak ekiten badira, eta haien indarraldia bukatzen denean **BERRITU** egin behar dira.



ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAREN ETIKETAREN NAHITAEZKOTASUNA



KASUA 3

LEHENDIK DAGOEN ERAIKINA, EDO ERAIKIN-ZATIA, NON ERABERRITZEAK EDO HANDITZEAK EGIN DIRA

Betebeharra

Eraberritzeak edo handitzeak honako kasu hauetakoren bat betetzen duenean, eraginkortasun energetikoaren ziurtapenak 2 fase izango ditu, **ziurtapena proiektu-fasean eta ziurtapena eraikin bukatuaren fasean**. Proiektu-fasean, Proiektuaren Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiriak, egikaritze-proiektua bisatu aurretik, Erregistroan inskribatuta egon behar du, hau da, dagokion Eraginkortasun Energetikoaren Etiketa izan behar du. Eraikin Bukatuaren Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria, Erregistroan behin inskribatu ondoren, Eraikinaren Liburuan jasota geratu behar da:

1.º Instalazio termikoak ordeztzean, instalatzean edo berritzean. Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduak (1027/2007 Errege Dekretuak, uztailaren 20koak, onetsia) bere 15. artikuluan ezarritakoaren arabera, proiektu bat izatea edo lehendik dagoen bat moldatzea eskatzen duenean.

2.º Eraikinaren azken ingurutzaille termikoaren azalera osoaren % 25 baino gehiagoko esku-hartzean.

3.º Erabiltzen den erabilera-unitatearen edo unitateen azalera edo bolumen eraikia % 10 baino gehiago handitzean, hedatutako azalera erabilgarria, guztira, 50m²-tik gorakoa denean.

4. Eraikinaren arkitektura-konfigurazioan aldaketak eragin dituzten esku-hartzeak egiten direnean. Halakotzat hartuko dira esku-hartze osokoak edo partzialak, baldin eta kanpoko konposizio orokorra, bolumetria edo egitura-sistema osoa funtsean aldatzea badakarte, edo xedetzat eraikinaren berezko erabilerak aldatzea badute.

Aurrekoen bestelako eraberritze edo handitze mota batzuetarako, orduan, Lehendik dagoen Eraikinaren Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria edo, eraberritzearen edo handitzearen aurretiko egoeraren ziurtagiria badago, Lehendik dagoen Eraikinaren Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiriaren eguneratzea, Erregistroan inskribatu behar da behin obra amaitutakoan.

Norentzat

Eraikinaren jabea den pertsona.

Zergatik

[Eraikin eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarrizko prozedura onartzen duen ekainaren 1eko 390/2021 Errege Dekretuak](#) bere 3.1.d) eta 9 artikuluetan, eta [Euskal Autonomia Erkidegoko eraikin eraginkortasun energetikoaren ziurtapenari eta ziurtapenaren kontrol-prozedurari eta erregistroari buruzko otsailaren 26ko 25/2019 Dekretuak](#) bere 2.2 artikuluan jasotakoaren arabera.


Gogoratu:

Informazio gehiago behar duzu?



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAREN ETIKETAREN NAHITAEZKOTASUNA



LEHENDIK DAGOEN ERAIKINA, EDO ERAIKIN-ZATIA, NON ERABERRITZEAK EDO HANDITZEAK EGIN DIRA

Gogoratu:

1. Eraginkortasun Energetikoaren Etiketa lortzeak frogatzen du Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria Erregistroan behin betiko inskribatu dela.
2. Energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoan A, B edo C kalifikazioa duten Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiri guztientzat, sustatzaileak edo jabeak ziurtagiriaren kontrola kontratatu behar dio **Kontrol Agente** bati. **Jabekide-erkidegoen jabetzako etxebizitza-erabilera eskusiboko eraikinen birgaitzeak badira, jabeak kontrola eska diezaioke Euskadiko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroari.**
3. Birgaitze energetikoko obretarako laguntza ekonomikoak eskatzen direnean, laguntza horiek arautzen dituzten organoek Erregistroan inskribatutako Lehendik dagoen Eraikinaren Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria izatea eskatu ohi dute, birgaitzearen aurreko egoerari buruzkoa. **Ziurtagiri horrek Erregistroan inskribatuta egon behar du birgaitze-lanak hasi aurretik.**
4. Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiri guztiak **EGUNERATU** egin behar dira hasieran bildutako kalifikazio energetikoari eragiten dioten obrak ekiten badira, eta haien indarraldia bukatzen denean **BERRITU** egin behar dira.



ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAREN ETIKETAREN NAHITAEZKOTASUNA



LEHENDIK DAUDEN ERAIKINAK, EDO ERAIKIN-ZATIAK, GUZTIRA 500 m²-KO AZALERA ERABILGARRIA DUTENAK ETA ERABILERA HAUETARAKO ERABILTZEN DIRENAK: ADMINISTRAZIO-, OSASUN-, MERKATARITZAKO, BIZITEGI PUBLIKOKO, IRAKASKUNTZAKO, KULTURA-, JOLAS-JARDUERAKO, OTORDU-ZERBITZURAKO, PERTSONEN GARRAIORAKO, KIROL- ETA GURTZA-ERABILERA

Betebeharra

Euskadiko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiriaren Erregistroan inskribatuta egon behar duen Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria izan behar dute, eta, beraz, Eraginkortasun Energetikoaren Etiketa izan behar dute.

Norentzat

Eraikinaren edo eraikin-zatiaren jabea den pertsona.

Zergatik

[Eraikinen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarritzko prozedura onartzen duen ekainaren 1eko 390/2021 Errege Dekretuak](#) bere 3.1.e) artikuluan eta azken xedapenetatik hirugarrenean jasotakoaren arabera.



Gogoratu:

Informazio gehiago behar duzu?



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAREN ETIKETAREN NAHITAEZKOTASUNA



LEHENDIK DAUDEN ERAIKINAK, EDO ERAIKIN-ZATIAK, GUZTIRA 500 m²-KO AZALERA ERABILGARRIA DUTENAK ETA ERABILERA HAUETARAKO ERABILTZEN DIRENAK: ADMINISTRAZIO-, OSASUN-, MERKATARITZAKO, BIZITEGI PUBLIKOKO, IRAKASKUNTZAKO, KULTURA-, JOLAS-JARDUERAKO, OTORDU-ZERBITZURAKO, PERTSONEN GARRAIORAKO, KIROL- ETA GURTZA-ERABILERA

Gogoratu:

1. Eraginkortasun Energetikoaren Etiketa lortzeak frogatzen du Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria Erregistroan behin betiko inskribatu dela.
2. Energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoan A, B edo C kalifikazioa duten Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiri guztientzat, jabeak ziurtagiriaren kontrola kontratatu behar dio **Kontrol Agente** bati.
3. **Nahitaezkoa da Eraginkortasun Energetikoaren Etiketa leku nabarmenean eta jendeak argi eta garbi ikusteko moduan erakustea.**
4. Energetikoki ziurtatzeko betebeharretik salbuetsita daude honako hauek:
 - a) Ofizialki babestutako eraikinak, ingurune aitortu baten zati direlako edo balio arkitektoniko edo historiko berezia dutelako, **betiere eraginkortasun energetikoa hobetzeko edozein jarduerak haren izaera edo itxura modu onartezinean aldatzen badu. Babes ofiziala ematen duen agintaritzak zehaztu beharko ditu aldaezinak diren elementuak.**
 - b) **Behin-behineko eraikuntzak, bi urte edo gutxiagoko erabilera-epea aurreikusita dutenak.**
 - c) **Aurri-egoeran dauden eraikin osoak.**
 - d) **Espazio bizigarriztat hartzen ez diren eraikinak edo eraikin-zatiak, hala nola landugabeko lokalak, garajeak eta trastelekuak.**
5. Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiri guztiak **EGUNERATU** egin behar dira hasieran bildutako kalifikazio energetikoari eragiten dioten obrak ekiten badira, eta haien indarraldia bukatzen denean **BERRITU** egin behar dira.



ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAREN ETIKETAREN NAHITAEZKOTASUNA



ERAIKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOA (EIT) PASA BEHAR DUTEN ERAIKINAK

Betebeharra

Euskadiko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroan inskribatu behar da Lehendik dagoen Eraikinaren Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria, Eraikinaren Ikuskaritza Teknikoa egiterakoan lortutakoa, eta, beraz, Eraginkortasun Energetikoaren Etiketa izan behar dute.

Norentzat

Eraikinaren edo eraikin-zatiaren jabea den pertsona.

Zergatik

[Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko azaroaren 10eko 254/2020 Dekretuak](#) bere 37.3 eta 37.4 artikuluetan jasotakoaren arabera.



Gogoratu:

Informazio gehiago behar duzu?



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAREN ETIKETAREN NAHITAEZKOTASUNA



ERAIKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOA (EIT) PASA BEHAR DUTEN ERAIKINAK

Gogoratu:

1. Eraginkortasun Energetikoaren Etiketa lortzeak frogatzen du Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria Erregistroan behin betiko inskribatu dela.
2. Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria Euskadiko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroan inskribatzeko betebeharra ez da, inola ere, nahitaezko izapidea izango eraikinaren ikuskapen teknikoa aurkezteko.
3. Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiri guztiak **EGUNERATU** egin behar dira hasieran bildutako kalifikazio energetikoari eragiten dioten obrak ekiten badira, eta haien indarraldia bukatzen denean **BERRITU** egin behar dira.



ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAREN ETIKETAREN NAHITAEZKOTASUNA



EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN TITULARTASUNEN ETA ERAIKIN-ZATIAK

Betebeharra

Euskadiko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiriaren Erregistroan inskribatuta egon behar duen Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria izan behar dute, eta, beraz, Eraginkortasun Energetikoaren Etiketa izan behar dute.

Norentzat

EAEko Administrazio Publikoak.

Zergatik

[Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legeak](#) bere 19 artikuluan jasotakoaren arabera, [Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko azaroaren 10eko 254/2020 Dekretuak](#) bere 23 artikuluan garatutakoa.



Gogoratu:

Informazio gehiago behar duzu?



ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAREN ETIKETAREN NAHITAEZKOTASUNA



EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN TITULARTASUNENKO ERAIKINAK ETA ERAIKIN-ZATIAK

Gogoratu:

1. Eraginkortasun Energetikoaren Etiketa lortzeak frogatzen du Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria Erregistroan behin betiko inskribatu dela.
2. Energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoan A, B edo C kalifikazioa duten Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiri guztientzat, jabeak ziurtagiriaren kontrola kontratatu behar dio **Kontrol Agente** bati.
3. **Nahitaezkoa da Eraginkortasun Energetikoaren Etiketa leku nabarmenean eta jendeak argi eta garbi ikusteko moduan erakustea.**
4. Energetikoki ziurtatzeko betebeharretik salbuetsita daude honako hauek:
 - a) Ofizialki babestutako eraikinak, ingurune aitortu baten zati direlako edo balio arkitektoniko edo historiko berezia dutelako, **betiere eraginkortasun energetikoa hobetzeko edozein jarduerak haren izaera edo itxura modu onartezinean aldatzen badu. Babes ofiziala ematen duen agintaritzak zehaztu beharko ditu aldaezinak diren elementuak.**
 - b) Behin-behineko eraikuntzak, bi urte edo gutxiagoko erabilera-epea aurreikusita dutenak.
 - c) **Beste eraikinekin kontaktuan ez dauden eta guztira 50 m²-tik beherako azalera erabilgarria duten eraikinak.**
 - d) **Aurri-egoeran dauden eraikin osoak.**
 - e) **Espazio bizigarritzat hartzen ez diren eraikinak edo eraikin-zatiak, hala nola landugabeko lokalak, garajeak eta trastelekuak.**
5. Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiri guztiak **EGUNERATU** egin behar dira hasieran bildutako kalifikazio energetikoari eragiten dioten obrak ekiten badira, eta haien indarraldia bukatzen denean **BERRITU** egin behar dira.



ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAREN ETIKETAREN NAHITAEZKOTASUNA



EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK EZ DIREN ADMINISTRAZIO PUBLIKOEI DAGOZKIEN EDO HAIEK OKUPATUTAKO ERAIKINAK EDO ERAIKIN-ZATIAK

Betebeharra

Euskadiko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroan inskribatuta egon behar duen Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria izan behar dute, eta, beraz, Eraginkortasun Energetikoaren Etiketa izan behar dute.

Norentzat

EAEkoak ez diren Administrazio Publikoak.

Zergatik

[Eraikinen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarrizko prozedura onartzen duen ekainaren leku 390/2021 Errege Dekretuak](#) bere 3.1.c) artikuluan eta azken xedapenetatik hirugarrenean jasotakoaren arabera.




Gogoratu:

Informazio gehiago behar duzu?



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAREN ETIKETAREN NAHITAEZKOTASUNA




EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK EZ DIREN ADMINISTRAZIO PUBLIKOEI DAGOZKIEN EDO HAIEK OKUPATUTAKO ERAIKINAK EDO ERAIKIN-ZATIAK

Gogoratu:

1. Eraginkortasun Energetikoaren Etiketa lortzeak frogatzen du Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria Erregistroan behin betiko inskribatu dela.
2. Energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoan A, B edo C kalifikazioa duten Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiri guztientzat, jabeak ziurtagiriaren kontrola kontratatu behar dio **Kontrol Agente** bati.
3. **Nahitaezkoa da Eraginkortasun Energetikoaren Etiketa leku nabarmenean eta jendeak argi eta garbi ikusteko moduan erakustea.**
4. Energetikoki ziurtatzeko betebeharretik salbuetsita daude honako hauek:
 - a) Ofizialki babestutako eraikinak, ingurune aitortu baten zati direlako edo balio arkitektoniko edo historiko berezia dutelako, **betiere eraginkortasun energetikoa hobetzeko edozein jarduerak haren izaera edo itxura modu onartezinean aldatzen badu. Babes ofiziala ematen duen agintaritzak zehaztu beharko ditu aldaezinak diren elementuak.**
 - b) **Behin-behineko eraikuntzak, bi urte edo gutxiagoko erabilera-epa aurreikusita dutenak.**
 - c) **Aurri-egoeran dauden eraikin osoak.**
 - d) **Espazio bizigarritzat hartzen ez diren eraikinak edo eraikin-zatiak, hala nola landugabeko lokalak, garajeak eta trastelekuak.**
5. Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiri guztiak **EGUNERATU** egin behar dira hasieran bildutako kalifikazio energetikoari eragiten dioten obrak ekiten badira, eta haien indarraldia bukatzen denean **BERRITU** egin behar dira.



ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAREN ETIKETAREN NAHITAEZKOTASUNA



ENERGIA-KONTSUMITZAILE HANDIAK DIREN ENPRESEN JABETZAKO ERAIKINAK, EDO ERAIKIN-ZATIAK

Betebeharra


Euskadiko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiriaren Erregistroan inskribatuta egon behar duen Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria izan behar dute, eta, beraz, Eraginkortasun Energetikoaren Etiketa izan behar dute.

Norentzat

Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoaren otsailaren 21eko 4/2019 Legearen eraginpeko industria-sektoreetako, zerbitzu pribatuetako eta merkataritza-sektoreetako enpresak.

Zergatik

[Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legeak](#) bere 33 eta 39 artikuluetan jasotakoaren arabera, [Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko azaroaren 10eko 254/2020 Dekretuak](#) bere 36 artikuluan garatutakoa.




Gogoratu:

Informazio gehiago behar duzu?



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAREN ETIKETAREN NAHITAEZKOTASUNA



ENERGIA-KONTSUMITZAILE HANDIAK DIREN ENPRESEN JABETZAKO ERAIKINAK, EDO ERAIKIN-ZATIAK

Gogoratu:

1. Eraginkortasun Energetikoaren Etiketa lortzeko frogatzen du Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria Erregistroan behin betiko inskribatu dela.
2. Energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoan A, B edo C kalifikazioa duten Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiri guztientzat, jabeak ziurtagiriaren kontrola kontratatu behar dio **Kontrol Agente** bati.
3. Nahitazkoa da Eraginkortasun Energetikoaren Etiketa leku nabarmenean eta jendeak argi eta garbi ikusteko moduan erakustea.
4. Energetikoki ziurtatzeko betebeharrak tailerretarako edo industria-prozesuetarako ez diren eraikinei edo horien zatiei bakarrik eragiten die, baldin eta 50 m²-ko edo gehiagoko azalera erabilgarria badute eta erabiltzen dituzten pertsonen erosotasunerako berotuta eta/edo hoztuta badaude.
5. Energetikoki ziurtatzeko betebeharretik salbuetsita daude honako hauek:
 - a) Ofizialki babestutako eraikinak, ingurune aitortu baten zati direlako edo balio arkitektoniko edo historiko berezia dutelako, **betiere eraginkortasun energetikoa hobetzeko edozein jarduerak haren izaera edo itxura modu onartezinean aldatzen badu. Babes ofiziala ematen duen agintaritzak zehaztu beharko ditu aldazkinak diren elementuak.**
 - b) Behin-behineko eraikuntzak, bi urte edo gutxiagoko erabilera-epea aurreikusita dutenak.
 - c) Aurri-egoeran dauden eraikin osoak.
 - d) Espazio bizigarritzat hartzen ez diren eraikinak edo eraikin-zatiak, hala nola landugabeko lokalak, garajeak eta trastelekuak.
6. Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiri guztiak **EGUNERATU** egin behar dira hasieran bildutako kalifikazio energetikoari eragiten dioten obrak ekiten badira, eta haien indarraldia bukatzen denean **BERRITU** egin behar dira.



ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAREN ETIKETAREN NAHITAEZKOTASUNA



TITULARTASUN PRIBATUKO ERAIKINAK, 2020KO AZAROAREN 19AN ZEUDENAK, BIZITEGI-ERABILERARAKO DIRENAK

Betebeharra


Euskadiko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroan inskribatuta egon behar duen Lehendik dagoen Eraikinaren Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria izan behar dute, eta, beraz, Eraginkortasun Energetikoaren Etiketa izan behar dute.

Norentzat

Eraikinaren edo eraikin-zatiaren jabea den pertsona.

Por qué

[Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legeak](#) bere 42, c) artikuluan jasotakoaren arabera, [Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko azaroaren 10eko 254/2020 Dekretuak](#) bere 37 artikuluan garatutakoa.



Gogoratu:

1. Eraginkortasun Energetikoaren Etiketa lortzeak frogatzen du Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria Erregistroan behin betiko inskribatu dela.
2. Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiri guztiak **EGUNERATU** egin behar dira hasieran bildutako kalifikazio energetikoari eragiten dioten obrak ekiten badira, eta haien indarraldia bukatzen denean **BERRITU** egin behar dira.

Informazio gehiago
behar duzu?



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAREN ETIKETAREN NAHITAEZKOTASUNA



INFORMAZIO GEHIAGO

Informazio gehiago behar izanez gero, Euskadiko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroaren webgunera jo dezakezu:

www.euskadi.eus/ziurtagiri-energetikoa



Edo ondoko e-maila erabiliz harremanetan jarri:

registrocee@euskadi.eus



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO